

Nafarkaria

• ostirala • 2002ko otsailaren 1a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Iruñea • Inauterien atariko diren kauteren jaiaren hamargarren urteurrena ospatuko dute bihar

Eremu musika taldea • «Ultzaman gazteak biltzeko leku bakarra kiroldegia da»

Elurrik ez zuloetan

XVII. eta XIX. mendeen artean, Nafarroako herri anitzetan elur zulo artifizialak eraiki eta erruz erabili zituzten, elurra urte osoan izateko. Elur zuloak, elurtegiak, izoztegiak edo horma biltegiak erabiltzeari utzi zioten hozkailu-industria modernoa sortu zelarik.

Baina zuloak han geratu ziren; zulo. Egun sasiz beteriko zuloak

besterik ez dira, eta jada ez

dute elurrik

gordetzen. Baten

bat, Oibarkoa

kasu,

lehengoratu


egin dute.



Malerreka • Euskara saltzen

Merkataritzan euskararen erabilera hedatzeko egitasmoa prestatu dute Malerrekan

Azkeneko urteetan bezala, aurten ere, Malerreka Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak euskara merkataritzan hedatzeko egitasmoa paratu du abian. Helburu nagusia merkataritzako harremanak euskaraz egitea du kanpaina honek.



Mallerrekako saltokietan euskara sustatu nahi dute. Irudian, Doneztebeko botika bat.

• JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

EUSKARA MERKATARITZAN sartzeko ahaleginarekin sortu zen Euskal Herriko hainbete herrian *Euskara Merkataritzara* kanpaina. Ekimenaren bidez hizkuntza normalizatu nahi da denda, ostatu, jatetxe eta, funtsean, merkataritzako sektore guztietan. Hala, mankomunitatetik merkataritza guztiei

bisita eginen zaie, eta hainbat eskaintza eginen. Nagusiki, ageriko elementuen itzulpen eta maketazio zerbitzua eskaintzen zaie (kartelak, orduetegiak, merkealdietako txartelak, menuak eta kartak, faktura orriak, errotaulazioa...), baina baita hizkuntza aholkularitza zerbitzua eta merkatarientzat propio an-

tolatutako euskara ikastaroak ere. Hurrengo bi asteetan jasoko dute, bada, mankomunitateko kide baten bisita Malerreka-ko merkataritza guztiek.

Iritzi ikerketa

Bisitarekin batera, Malerreka Mankomunitateak Siadeco enpresak joan den urtean sal-

tzaileei egindako iritzi-ikerketaren emaitzak biltzen dituen argitalpena zabalduko zaie. Ikerketa horrek euskararen inguruko datuak biltzen ditu (zenbat erabiltzen den eskualdean salerosketetan, ageriko elementuetan...). Ikerketak euskararen inguruko datuak ez ezik, alderdi komertziala ere biltzen du.

Bortzirietan ere antzeko egitasmoak egin izan dira antzina-ko urteetan, baina joan den urteaz geroztik, iraunkorki egiten da lan hori, eta urte osoan mantentzen da harremana bertako saltokietan, zerbitzua eraginkorragoa izan dadin.

Horrelako kanpaineekin, euskararen sustapenean eragin nahi da. Bertako euskara zerbitzuentzat interes handiko egitasmoa da hau, izan ere, herriarren eguneroko bizitzarekiko harreman eta eragin handia duen arloa baita. Herrien nortasunean eta garapen sozioekonomikoan ere berebiziko lekua dute dendeak, eta euskarak bere lekua izan dezan ziurtatzeko ahalegina da hau.

Kontuan harturik euskarak lan munduan sartzeko dituen zailtasunak, esparru horretan ere bere ekarpena egin nahi du kanpainak, bezeroarekiko harreman hurbilagatik, inon baino errazagoa baita euskaraz lan egiteko baldintzak sortzea. Merkatarien borondatea mankomunitatearen aholkularitza-ekin osatu nahi dute kanpaina honen bidez.

→ Jon Abril

Bera

Bidaia bat liburutara

BERAKO KULTUR BATZORDEAK eta Berako Udal Liburutegiak, literatura sustatzeko xedearekin, *Bidaia bat liburutara* izeneko programa iraunkorra paratu du abian. Hilabetero-hilabetero antolatuko dituzte ekitaldiak. Lehendabiziko emanaldia gaur izanen da, 19:30ean, Kultur Etxeko udal liburutegian.

Emanaldi sorta honekin munduko hainbat leku eza-gutarazi nahi dituzte, betiere literaturaren bidetik.

Horrela bada, Jon Arretxe idazleak *Zazpi kolore* bere liburua aurkeztuko du gaur, diapositibez lagundua. Arretxek munduan zehar egin dituen bidaietako esperientziekin osaturiko ipuinak biltzen dira liburu horretan. Zazpi koloreekin jokatzeko du, eta kolore bakoitzari munduko txoko bat eta istorio bat ematen dio, kultura bakoitzean koloreak dituzten irakurketa bereziak aintzat hartuta. «Kolore asko dituzte munduak, bazter batetik bestera aldatu egiten baitira hizkuntzak, ohiturak... eta horrek guztiak ederrago egiten du mundua», Arretxeren hitzetan. Bere ibilaldi ugarietan ikusitako jendeak eta esperientziak erabili ditu Jon Arretxek, Afrika, Amerika nahiz Asiako pasadizoak ipuin bihurturik eskaintzeko.

Zikloak hurrengo bi emanaldiak ere lotuak ditu dagoeneko. Aurrerapen gisa, honakoak izanen dira: martxoaren 1ean, ortziralarekin, Harkaitz Cano *Piano gainean gosaltzen* liburuarekin; eta apirilaren 12an, Pako Aristik *Venezuela, iraultza isilaren hitzak* azalduko du.

→ Daniel Urrutia

ziutatea

ARITZ AGIRRE



Hiri guztietan dago larunbata hondartzeko Marengo pub partikularra eta asteleheneko egunkariaren edizio fina betetzeko futbol taldea. Gainera, futbol talde bakoitzak ere badu Marengorik, eta, hortaz, grabitatearen legearen poderioz, Marengo egunkariaren titularretako protagonista izaten da beti azkenean.

Kasu honetan, Marengokoa baino glamour gehiago behar omen zuten Barça-ko izarrek, lau izarreko Hesperia hotelean hain zuzen ere. Baina zelaian Marengo gailendu zitzaion Hesperiarri, bat eta huts; Reina izeneko ate zaindari horren hanka tartetik sartu zen baloia.

Abiadura bizian gauzatu zen jokaldia (aurrena gora, zeharka gero, baloia behera), baina luzea izan zen golak ekarritako plazera. Alfredok sartu zuen, eta bufanda gorri-

Marengo gutxiago

dun guztiengana hedatu zen orgasmoa, non eta Nou Campen, futbolaren seminarioan. Barça-ko jokalariek coitus interruptus egoeran. Zaleak ase gabe, eztanda gorenera ezin heldu, aho bete hortz. Horrelako egoeran ohi denez, haserre.

Orduan, soilik baloia sarera heltzen ez denean etortzen zaizkio zaleari Hesperia Hoteleko irudi porno lizunak, imajinarioak, Cuencako gorputz titidun lirinak hanka gihartsu holandarren artean. Sadarren ere nozitu ditugu gisa bereko burutazioak, sailkapenean beherago geunden garai horietan. «Marengo gutxiago (...) gehiago», kantatzen genuen. Gurean, ordea, sexu irudi lizunak ez, Marengoko ba-

rra gaineko kubatak etortzen zaitzaizkigun gogora; eta korbatako limakoak, eta eskote luzeko emakume eder edadetuak, eta Pipa Gancedo-

rekin batera Ziober, De Freitas eta Pizo aho bero dantzan. Deitoragarria, zinez.

Sadarren Marengo eta gola sartzeko gaitasuna alderantzizko proportzionalak ei dira. Sailkapenean gorago, orduan eta gutxiago Marengora, eta alderantziz. Arrazoirik ezean, kuba-librea hartzen dugu faktore nagusitzat, porrotaren errudun. Gurasoek zin egin didate gorritxorik sekula ez dutela ikusi Marengoko «guatekean». Berdin dio, ekainean jakinen dugu gorritxoak bertara zenbatero joan ote diren, liga sailkapenean erdietsitako postuaren arabera. Ulertezina. Erdarakadak dioen legez, futbola horrelakoa da.

Inauteriak Nafarroan...

Iruñea •

Kauterak karrikara

ur dai
aren
mintzoa

Xabier Larraburu

4x4

... eta duplexa. Bi hitz hauetan bil-tzen dira nafar askoren ametsak. American way of live, azken finean. (Bushek Pearl Harbourko ospakizunetan esan zuen bezala: «Terroristen inbidia sortzen duen eta defendatu behar dugun gure bizitzeko era hori». Orain gastu militarrik igotzea eskatzen ari da, ekonomiari bultzada bat ematearren, bizitzeko «era» hori mantentzearen). Oritzen naiz orain dela bost urte edo, Ford etxeko morroi bati etorkizunaz galdetu ziotela eta bere erantzuna izan zen etorkizun distiratsu bat aurrean zutela. Esan zuen Txinako eta Indiako merkatuak zabaltzen ari zirela eta hortxe milaka kotxe saltzeko aukera berriak izango zituztela. American way of live guztientzat, beraz. (Zientifikoek / Ekologistek hori ezinezkoa dela esan arren, bitartean Italiako hiri askotan, kutsadura itogarria dela eta, kotxeen mugimenduak debekatu nahi dituzten arren). Arriortua beraren amets aitortua: familia bakoitzak bi kotxe izatea (txinoek ere bai?). Gero kotxe istripua izan zuen eta zeharo hondatua ikusteko aukera izan genuen epaiketa batean, niretzat bederen, mendearen ikono bat boro-bilduz: epaileen galderek High Technology munduko aferekin zuten erlazioa; erantzunak gixajo batenak ziren, kotxeak apurtutako gizasemearenak (Txespirren lan baten amaiera zirudien hura). American way of live hau ere.

Gazteluko plazaren barrenean eraikitzen ari diren parkingaren antzera. 4x4ak errenkan aparkatzeko. Paris erdian ere, Nôtre Dameko plazan, behera doazen eskailera batzuk daude. Hor barruan, itzalean, antzinako arrastoak aurkitu zituzten (Iruñean hondakinak deitzen ditugun horietakoak), besteak beste erromatar etxeen harritxo batzuk. Oritzen naiz hunkitu nintzela, pentsatuz hortxe hasi zela Paris guztia (eta Paris asko da, eta, segur aski, asko da urteetan asko zaindu dutelako), hortxe zeudela galiarrak eta Lutezia eta benebenetakoa zela guztia. Frantsesek harritxo batzuk besterik ez zituzten aurkitu. Iruinarri bat aurkitzekotan, Jesus! Eurotan ikusiko genuke orain Frantziako ikurra bezala! Iruindarrek, aldiz, dena lekuz aldatu nahi dute kotxei leku gehiago egiteko. Frantziar ez bezala, Iruñean hiri erdiko plazaren eskailera jaitsi eta 4x4ak ikusiko ditugu, argi txuriaren pean, errenkan •

Inauterien atariko diren kauteren jaiaren hamargarren urteurrena ospatuko dute bihar

Aitatxarka sugea, Margarito hartza, zaldikoak, Lancelot eta Arazuriko Xelebrea, Andrea su erraldoiak eta herensuge hegaduna. Urtez urte Iruñeko Kauterak Elkarteak berreskuratu dituen pertsonaiak Iruñeko karriketan izanen dira bihar.



Aurtengo kauterak iragartzeko kartela, *Inauteriak*, Luis Morea margolariak egin du. • EGUNKARIA

egiteko bost hilabete behar izan ditu artistak. «Lan neke-tsua izan da, pixkanaka-pixkanaka egiten den horietakoa. Hasieran lan abstraktua egiteko asmoa nuen, baina neurekoia izateari uko egin nion, eta ahalegina egin dut inauterietako lan polita egiteko. Gustura nago emaitzarekin». Artistak erran zuenez, margotu dituen maskarak umeek eskuz egin ditzaten nahi du. «Ea hurrengo urtean karrikara ateratzen diren maskara hauek ere».

Inauteriak nonahi

Iruñean bezala, Lizarran ere egingen dute kauteren jaialdia bihar. Eta, kaute-rez landara, Nafarroako beste hainbat herritan inauteriak ospatuko dituzte asteburuan: Igantzin eta Azpilkuetan gaur eta bihar; Zigan gaurtik igandea arte; eta Etxalaren ostegunean.

Gainera, Noingo Gau Eskolak antolatuta, Jose Maria Satrutegi euskaltzain eta antropologoak *Inauteriak Nafarroan*, herri baten sormena izenburuko hitzaldia eskainiko du Noainen, gaur, 20:30ean, arkupetako aretoan.

→ Kristina Berasain

zen», gogorazi zuen Peio Otano elkarteak zuzendariak. Hamar urte hauetan Iruñeko historian izan diren pertsonaia historikoak berreskuratu ditu elkar-teak. «Maite Pascual irakasleak egin dituen ikerketetatik abiatuz berreskuratu ditugu pertsonaiak. Gehienak XVI. mendeko pertsonaiak dira», zehaztu zuen Monrealek.

Luis Morearen kartela

Aurtengo kauterak iragartzeko kartela, *Inauteriak*, Luis Morea margolariak egin du. Bertan, natura ardatz, inauterietako pertsonaia berriak asmatu eta islatu ditu iruindarrak. «Lurra, haizea, ura eta sua elementuak islatu nahi izan ditut, nolabait, inauterien benetako zentzua berreskuratzearren». Artelana

Lizarra •

Erreskate itxuratua Urban

Lizarrako Espeleologia Taldeak gidatuta, Nafarroako hainbat espeleologia taldetako hogeitakidek lur azpiko erreskate itxuratua egingen dute bihar eta etzi. Erreskatea egiteko aukeraturiko barrunbea Txintxoleze izeneko sima da. Txintxolezek 54 metroko sakonera du eta 332 metroko luzera. Urbasa eta Andiako parkearen eta Limitaciones mendiaren artean dagoen hesiaren ondoan dago. Is-

tripua izanez gero, barrunbe horrek duen arazorik handiena da barnera sartzeko erabiltzen diren hondorik gabeko meandroen estutasun handia.

Espeleologoek barrunbea ekipatuko dute benetako erreskatea egiten baleude bezala. Horrela bada, pertsona batek zaurituarena egingen du, eta barrunbearen barrenetik kanpora ohatilan ateratzen saiatuko dira.

Iruñea •

Bosgarren zinemaldia

Bosgarren aldiz, Karrikirik, Iruñeko Euskaldunon Elkarteak, euskarazko film zinemaldia antolatu du, otsailetik maiatzera. Lehen emanaldia gaur izanen da: *Jainkoaren ertzak* (AEB, 2001), Yurek Bogayevicz zuzendariarena. Beréz, gaur beste film bat pantailaratu behar zuten, *No man's land*, baina arazo teknikoak direla-eta ezin izan dute, eta hurrengo asterako utzi dute.

Denetara zazpi film luze eskainiko dituzte, ostirale-tan, 20:30ean, Golem zinematokietan. Karrikirikoek, iaz egin zuten gisara, asmoa zuten film luzeekin batera euskarazko film laburrak ere eskaintzeko, baina erre-alitateak zaplaztekoa eman zien: iaz ez omen zen Euskal Herrian euskarazko film laburrik egin, eta, horregatik, bertan behera utzi behar izan dute egitasmoa.

Elurra gordetzeko zuloak

Nafarroako herri anitzetan ziren izotz biltegiak aspaldi abandonatu ziren eta orain ari dira ezagutzen

MENDEETAN, ARALAR, URBASA ETA ANDIAKO leizeak elur biltegi natural bezala erabili izan dituzte. Adibidez, izozki saltzaile ibiltariak Andia elurtegiatik hartzen zuten ondoko herrietako bestetan saltzeko izozkiak egiteko gaia. Beste zenbait lekutan, harizko elurtegi artifizialak eraiki behar izan zituzten erortzen zen elurra bildu ahal izateko. Iragan mendearen hasieran abandonatu zituzten. Egun, mendietan dauden zuloak besterik ez dira.

Zulo bila

Orain, zenbaitzuek zulo horiek aurkitzea gustuko dute. Iazko maiatzean, NAFARKARIAko orriotan bertan bildu genuen zenbait elbetearek herri ondoko Autrin mendiaren magalean dagoen elurzulo bat aurkitu zutela; edo hobeki erranik, ahaztua zegoena berri zutela.

Herriatik hiru ordu laurdenera dago elurzuloa. 6,75 metroko diametroa du, eta 5-6 metroko sakonera. Iparraldera begira dago, noski, eguzkiak ahalik eta gutien jotzeko. Denboraren eta ez erabiltzearen poderioz, zulotzarraren inguruan eta barrenean hainbat sasi eta zuhaitz sortu dira, zuloa estaltzeraino; baina ez du berrikuntza handirik behar: lau harri bere tokian paratu eta garbitu; batez ere garbitu. Eta animaliak bertara ez erortzeko burdin hari bat jarri beharko litzateke. Eta mendizaleekin hitz egin beharko litzateke egiten dituzten planoetan elurzuloa ager dadin. Hau guziaz errana zaie mendiez arduratzen diren Baztango Udaleko langileei, baina oraingoz ez dute astirik izan elurzuloaren lanari ekiteko.

Lana pilatuko zaie; arestian esan bezala, elbeteak hauek zuloak bisitatzea gustuko baitute. Behin arizkundar batzuek aipatu zieten Amaiurren bazela beste bat; eta hara joan ziren txangoan. Alkuruntz mendiaren magalean dago, errepidetik hamar bat minutura, iparraldera begira hura ere. Murrua



Bi elbeteak, Autrin mendiaren magalean den elurzuloa neurtzen. ● RAKEL GOÑI

Elurzuloak, elurtegiak edo izoztegiak naturaliabideak baliatzeko moduak dira. Naturalak eta herri ondoan eraikitzen ziren, XVII eta XIX mendeen artean. Baina hozkailu-industria modernoa sortzean abandonatu zituzten. Egun sasiz beteriko zuloak besterik ez dira. Nafarroan adibide ugari ditugu.

eta zuloa oso ongi daude, baina ez da barnera sartzen ahal, sasiz beteta baitago.

Bi elurzulo Elizondoko


Bi elurzulo hauek ez dira Baztanen dauden bakarrak. Nafarroako Etnografia Koaderno-etakio iazko zenbaki batean, Pablo Orduna ikerlariak Elizondoko bi elurtegiaren gaineko lana argitaratu zuen. Ordunaren hitzetan, «ikerketak dakarren garrantziarekin ez da bi elurtegiaren ezaugarrien edota erabileren deskripzioa, alde atlantiar honetan (Baztanen) halakoak badirela jasotzea baizik, egundaino ez baitzen horrelako eraikinik erregistratu». Bada, orain badakigu Baztanen gutienez lau badirela.

Ordunak Elizondoko Laputzu eta Herriko Etxea elurtegiak aztertu ditu. Lehenbizikoa Laputzu izeneko larrean dago, Etxaide auzoan, Zaldarriaga etxearen jabegoan. Laputzu, nola ez, iparraldera begira dago. Zuloa borobil itxurakoa da, eta horrek elurzulo bezala identifikatzera eramaten gaitu; inguruko gaztainazulo karratuen ezberdina baita. Zuloa kupula faltsu batek ixten du. Zaldarriaga etxeko egungo jabeak ziur dira zuloa elurtegia dela eta. Ordunak jaso duenez, «esaten dute betidanik entzun izan dutela



Amaiurko elurzuloa sasiz beteta dago, eta ezin da bere sakonera ikusi. ● RAKEL GOÑI

● ASIER AZPILIKUETA



● EGUNKARIA

Oibarkoa lehen ein

Izko eta Salajones mendietan barrena ibiltzeko, sei bditute bertako udal eta kontzejuek. Haietako bat Bizkaiko elur zuloan, Elurtegia, XVIII. mendekoa, EHN enpresak lehengoratu berri du. Zuloa, hesi bat paratu dute; baita eskailera bat ere, inor bere kabuz ziora jaisteko.

bertan urte guziz biltzen zela elurra, gero hainbat gauzatarako erabiltzeko: sukarra jaisteko, udan edariak freskatzeko, elikagaiak kontserbatzeko...».

Elurzulo publikoa

Ordunak aztertutako bigarren elurzuloa Herriko Etxearen ortuko lekuri ilunenean dagoena da. Egun ezin ikusten ahal da, elurzulo bezala erabiltzeari aspaldi utzia, 1982an


gainean bi lauza handi paratu eta lurra bota ziotelako. Remigio Lizasoain zinegotziaren deskripzioari jarraiki, ahoa bi metroko izan zen, sakonera bost metrokoa, eta itxura karratukoa. Ez omen zuen kupularik. Lizasoainen arabera, «Herriko Etxeko putzuko elurra hainbat gaixotasunen tratamenduan eta herriko harategiko haragia kontserbatzeko erabiliko zuten. Ia segurua dena da jabetza publikokoa zela, eta errentatzaileen bati esleituko zitzaiola denbora mugatu batez».

Ordunak, ikerketako ondorioetan azaltzen du aztertutako bi elurtegiaren morfologiak oro har bat datorrela Nafarroan erregistraturiko beste guzietan. Zuloek itxura zirkularra, semizirkularra edo karratua dute. Diametroa eta sakonera beharrezko arabera, lursailaren ezaugarrien arabera, baina bertan egiten zuten elur kantitatearen arabera. Estalkia, izatekotan, kupula faltsu bat zen, eta produktuaren kondizio termikoak hobeki mantentzea erdiesten zuen.

Nafarroan erregistraturiko elurzuloen mapa bat dakar Ordunak bere artikuluan. Horren arabera, badira elurzuloak Elizondoko; Lapoblacion, Aras, Viana eta Urantzia (Los Arcos); Osakar, Nabatz eta Iruñean; Indurain eta Zangozan; Erriberri eta Zarakastelun; eta Corella, Fitero eta Tuteran.

Elurteak eskasagoak diren Nafarroako lekuei dagokien, aipatzekoa da, elurra zerutik erortzen ezenez, izotza lortzeko beste-lako sistema erabiltzen zutela. Sakonera tiki-kiko putzua egiten zuten, eta urez bete; ura neguko gau hotzetan izozten zen, eta hortik

● PABLO ORDUÑA




Laputzukoa, kupuladuna

Elizondoko Etxaide auzoan, Laputzu larrean, bada elur zulo bat, iparraldera begira. Zuloa biribil itxurakoa da, Nafarroako elur zulo gehienak bezala. Bost bat metroko sakonera eta lau metro pasatxoko diametroa du. Argazkian zein marrazkian ikusten denez, kupula faltsu batek ixten du zuloa. Estalkiak izotzaren kondizio termikoak hobeki mantentzen zituen.

Erriberriko errege elurtegia

Erriberriko errege jauregiaren kanpoaldean bada horma biltze handi bat, lur gainekoa, arrautza itxurakoa. Jauregiko lekuri ospelenean dago. Hozkailuan neguan elurra biltzen zuten, zama-zama egin eta, isolatzaile gisa ahotza tartekatuz, zenbait geruza osatu. Nahasketak uda bukatu arte iraun zezakeen.



● LANDER FERNANDEZ ARROIADE / ARGAZKI PRESS

Elurra koleraren aurka

Pablo Orduna ikerlariaren *Aproximacion al aprovechamiento de la nieve* artikulua arabera, eluraren ustiakuntza antzinatetik dator. Jada Mesopotamiako hiriguneetan, eskualdearen epeltasuna dela eta, edari hotzak egiteko hagitz produktu preziatua zen. Erabilera Mediterraneotik zabaltzen joan zen, eta erromatarrek Europako mendebalde-raino eraman zuten. Bizimodu klasikoaren bukaerarekin, eluraren eguneroko erabilera desagertu egin zen sukaldaritza eta medikuntza kristautik; baina arabiar munduan bere garrantzia mantenduz.

XVI eta XIX. mendeen artean tenperaturek behera egin zuten —Glaziar Aro Tikia deitu dute—. Hozte hark, Humanismoaren gustu berrituekin eta mendebaldeko zientziaren garapenarekin batera, eluraren erabileraren ugaltzea ekarri zuen. Mende haietan eraiki zituzten elurzuloak gure lurretan. Izotz fabrikek ordezkatu zituzten XX. mendearen hasieran.

Elurra medikuntzan eta sukaldaritzan erabili izan da. Francisco Francoren 1569ko *Tratado de la nieve y del uso de ella* liburua arabera, elurra erabiltzen zen sukarra gelditzeko, odolusteak eteteko, meningitisa tratatzeko, edo analgesiko bezala hezur apurketetan, zaintziratueta eta edozein traumatismo-tan.

Juan Cruz Labeaga historialariak pasarte interesgarria jasoa du: 1855ean, Zangozan kolera izurrite handia izan zen. Premiazko osasun neurriak hartu behar izan zituzten, horien artean gaixoei elurra ematea. Horregatik, elurtegiako ardura duna kexatu egin zen «egunez eta gaez banatu behar zuelako elurra». Baina Udalak ez zuen bere kexua kontuan hartu, hiriaren osasun egoera larria zelako oso.

izotz zatiak hartzen zituzten, handik elurzuloetara eramateko.

Oibarko elurzuloaren lehengoratzea

Mapa horri gehitu beharko zaio Oibar herri-rik lau kilometro dagoena, Bizkaiko elurzuloa. Izokoko mendietan paratu behar zuten haize erroten parkea egiterakoan aurkitu zuten. Elur biltzea zela ikusi eta Oibarko Udak lehengoratze asmoa agertu zuen. Ikerketa etnografikoa egiterakoan, udaletxeko agiri zaharretan ikusi zuten elurzuloa XVIII. mende osoan erabili zutela. 6,3 metroko diametroa eta 6 metrko sakonera du. Hortaz, bere garaian 190 bat metro kubo elur bilduko zituen.

EHNk (Energia Berriktagariaren Enpresa), Izko eta Salajones mendietan haize errotak paratu dituen enpresak, ordaindu ditu zaharberitze lanak; orotara, 30.000 euro pasatxo. Zuloa ongi garbitu, harritz eginko egitura finkatu eta ahoan hesi bat paratu dute, bisitariak edo animaliak zuloa ez erortzeko. Ate bat ere jarri dute, eta eskailera baten bidez behe-raino jaisten ahal da. Behean argi eta garbi ikusten da elurzuloak aspian zuten estolda ahoa. Zulo horretatik ateratzen zen izotzetik urrutakoa, eta horrela, izotza hobeki mantentzen zen.

Oibarko elurzuloak aukera paregabea eskaintzen du elur biltze hauen funtzionamendua erraz ulertzeko. Gainera, bertako udal eta kontzejuek, EHN enpresarekin batera, Izko eta Salajones mendietan barrena eginko sei ibilbideetako baten bukaera dago.

→ Asier Azpilikueta / Rakel Goñi

Aitorpen baikorra

Zer eginen diot bada.

Estatu Batuetako gazte uni-
bertsitarioen inguruko peli-
kula berdexkak gustatzen
zaizkit: Alfa, Beta, Gama ize-
neko ikasle kofradiak, atle-
tismo, saskibalo, errugbi jo-
kalariak, minigonadun sus-
tatzaileak —*animatzaile*
hitz ulergarriagoa ere erabil-
tzen ahal nuen, baina sekula-
koa da «hartu k bat, hartu a
bat, hartu k bat, hartu a bat»
oihukatzen duten neskatiko-
ak euskaraz *sustatzaile* izen-
datu ahal izatea—, garagar-
doa, korrokadak...

Bideoklubera joan eta *Los
albóndigas se remojan de
nuevo* bezalako pelikula bat
alokatzen baduzu, denda-
riak, nazka keinua aurpe-
gian zizelkatutik, goitik
behera egiten dizu so mun-
duko gizakirik ustelena
bazina bezala, alokatutik
pelikula *La perrita Lazzy y la mula
Francys se lo montan* balitz bezala.
Genero honi kritikatzeko kutsu
matxista, gidoi funsgabeak, irudi lan-
dugabeak. Ez naiz ni **Felix Linares,**
Begoña Del Teso, Alberto Irazu,
eta askok arestiko paragrafoa irakurri-
ta pentsatuko zuten **Jose Manuel
Parada** baino okerragoa naizela,
baina nire uste apalean aintzat hartu
beharko litzateke beste ikuspegi bate-
tik epaitzen ahal dela, aintzat hartuz
gidoi arin eta azkarrak, pertsonaia gor-
din eta tolesgabeak, fotografia zuzen

eta iruzurrik gabea. Eskerrak kutxa-
zain automatikoak bideklubetara
heldu diren.

Baikortasunaren iturburua.

Monte Carloko zerbitzari Samuel, ni
bezala, genero honetako pelikulen zale
amorratua da. Aurrekoan, *Porky's*
XVIII-ren fotografia ezin hobez ari
ginela, Gerardo ikurrina baino baskoa-
goa den mus bikotekidea heldu zen
tabernara. Isildu ginen. Gerardo jabetu
zen. Politikaz ari ginela iruditu zitzaion,
ez haserretzeko isiltzen ginela. Eta

esan zigun aurki Euskal Herrian era
guztietako proiektu politikoak eta
ideiak askatasun osoz, berdintasunean
eta haserretzeko gabe defendatzerik ego-
nen dela, Batasunak aurkeztu bake
proposamena sekulakoa dela.

Ez nion Gerardo lagunari kasu han-
dirik egin, baina gero etxean, emaztea,
seme-alabak eta laurok bazkaltzen ari
ginela, **Arnaldo Otegi** irratiaren entzun
nuen Batasunaren bake proposamena
zintzoa dela esaten, bakearen oinarria
eskubide guztiekiko errespetua dela
esaten. Eta jarraian **Jonan Fernan-**

dez Elkarri-ren bake konferentzia
espero baino arrakasta handiagoa lor-
tzen ari dela esaten, atzerritik datozen
adituek bake prozesua abian jartzear
dagoela uste dutela esaten, ETaren su-
etena heltzear dagoela dioen zurrumu-
rrua badabilela esaten. Eta aspaldiko
partez baikor sentitu nintzen. Eta era-
baki nuen armairutik ateratzea, eta
lerro hauetan publikoki defendatzea
denbora luzez isilpean gorde dudan
nire ideietako bat: unibertsitarioen
istorio berdexkak gustatzen zaizkit, eta
horretarako eskubidea osoa daukat.

INTERNET



Porky's II film berdexkako irudi bat.



panpilonia zirkus


Ura, zolda garbitzeko

Iruñeko seme-alabek, XVIII. mende aka-
beratik aitzinera, putzuko eta Argako uraz
landara, Zubitzatik zetorrena ere edan du-
te. Hagitz fama handia izan zuen, garai ba-
tean, Ezkabako iturburukoak, urketariak
karrikaz karrika saltzen zutena.

Duela bi mende debekatu zuten ura
leioetatik beheiti botatzeko, baina orain
dela 25 urte araua hautsi zen, Riaux Riaux
zela kausa. Dena dela, ur bila etxetik karri-
kara joan beharra zegoen; hurbilen zeuden
iturrietara, jakina. Etxekoandre eta neska-
txek burutea buruan paratzen zuten —hau
da, burua babesteko oihala—, eta gainean,
ferrata. Halaber, pegarrak erabiltzen ziren
ura eramateko. Ferratak, ordea, handiako-
ak ziren, eta bi motatakoak: zurezkoak,
jende xeheak erabiltzen zituenak, eta, zin-
kezkoak, etxe aberatsetan zituztenak. Az-

ken horiek urre koloreko uztaiak inguruz
inguru zituzten, eta tapa landuak. Gaur
egun, oraindik ere, ferrata horietakoren
batikus daiteke zenbait etxetako atarietan,
apaingarritako edota euritakoak uzteko.
Baita San Anton karrikako okindegian ere.

Joan-etorri hura neskendako ihesbidea
zen, etxetik ateratzeko eta etxeoandrea-
ren begiradapetik denbora puska bat ema-
teko. Iturrian astia hartzen zuten, marmar
aritzeko. Mintzatoki ederra zen hura, etxe-
ko nagusien moduak larrutzeke toki ezin
aproposagoa. Dena dela, maiz aski, kapa-
rrak hurbiltzen zitzaizkien, gizonezkoak,
euliak bezain lekedazuak. Hala ere, ez zi-
ren gutxi izan gero iturri-inguruetatik ez-
kon bidean jarritako bikoteak. Erraten du-
te kaparretan kaparrena Zakar-ipurdi izan
zela, Jarautakoa. Asteaz zapi egunez



Errekoleten plazako iturria.

Enrike Diez de Ultzurrun

Errekoleten plazan agertzen omen zen.
Aprobetxategi hura zain egoten zen nes-
kak ferrata buru gainean noiz paratuko,
bere esku luzeak dantzazteko. Behin ba-
tean, ordea, Sanduandiako neska bizkor
eta ausart batek, negu gorrian, urez bete-
tako ferrata buru gainera bota eta Zakar-
ipurdi ez zen sekula itzuli.

Artetako ura etxeraino ekarri zutenetik
bukatu ziren joan-etorri haiek, duela 100
urte baino gehiago. Pinaki izeneko jaun in-
jineruak bidea erakutsi zuen azken karlis-
taldian. Aitzindari hamaika gauzatan,
frantziar jatorriko iruindar horrek ura igoa-
razi baitzuen Argatik hiriraino, karlistek
1873tik aurrera Iruñea setiatu zutenean.
Karlistek ura moztu zuten, jakina, egarriak
eta zoldak hiriko bizilagunak etsiaraziko
zituelakoan. Soto guztiak, ordea, ardo eta
txakolinaz leher zeuden eta, azkenean, Pi-
nakik zapel gorrien gogo bizia zapuztu
zuen. Erraldoiak Gazteluko plazara atera
zituzten hura ospatzeko, ohi denez.

JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Eremu

ULTZAMAKO ROCK TALDEA

«Utzaman gazteak biltzeko leku bakarra kiroldegia da»

ERRAZA DA EREMU TALdekoak aurkitzea; Larraintzar herrira heldu, eta herritik hurbil dagoen etxabe batetik datozen gitarra elektriko baten nota distortionatuak aditzen ahal dira.

■ **Aitaren garajea, leku ederra entseatzeko. Zortea izan duzue, ezta?**

Bai, baina politena gaztetxeren batean-edo egoitea izango litzateke. Behin baino gehiagotan pentsatu dugu: gaztetxe bat jarriko balute, hara joango ginatke; askatasun handiagoa izanen genuke gazte giroan, gure giroan.

■ **Gazte batzarra igandero biltzen zen orain arte. Desagertu da, baina aztarna txiki bat utzi du, Eremu taldea han sortu baitzen.**

Bai, han sortu zen ideia, baina guk gustatzen zaigulako segitzen dugu, eta izugarri egiten du inguruko lagunek esaten digutenak, kristoren animoak ematen dizkigute. Egiten dugun edozein gauza gustatzen zaie.

■ **Beraz, batez ere familia eta lagunaren artean zale ugari duzue, ezta?**

Bai, baina kritikari bat falta zaigu, «hemen ez dakit zer sartu behar zenuten» esateko, eta ez beti «zein ongi» esaten duena.

■ **Kritikaririk ez, baina managerra baduzue jadanik.**

Bai. Gure musika entzun gabe, kontzertu bat antolatu zigun Faltzesen, Zartako taldearekin batera. Oso ongi ateraz zen, jende guztia saltoka jarri genuen; beste giro bat sumatu genuen han. Auzako kontzertuan, berriz, bat hemen saltoka, bestea han lurrean etzanda... Beno, Auzan goizeko ordu txikietan jo genuen eta horrek egundoko eragina du.

■ **Askatasunaren egunaren zain da zuen kantu baten izena. Aldarrikapenak dira nagusi zuen abestietan?**



● JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Iraizozko Iñigo Astiz baterian, Larraintzarko Iñaki Larraiotz eta Erripako Odei Altuna gitarretan, Auzako Egoitz Leon baxuan eta Jese Leon, Auzakoa hori ere, ahotsean eta perkusioan. Bost gazte horiek osatzen dute Ultzamako inguru horretan sortu den lehendabiziko rock taldea: Eremu.

Beno, badago bat irudi hutsa dena —trenak elkarren kontra jotzen eta holako irudi ilunak— eta maitasunezko kanta bat ere badugu.



● JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

■ **Eremu bezalako taldeetan ezinbestekoa al da balada bat egitea?**

Bat, bi edo hiru. Guk uste dugu diskoetan zerbait falta dela baladarik ez badago; hori da *Heavy-aren* lehea.

■ **Dena den, zuetako batzuei ez zaizue askorik gustatzen baladak jotzea.**

Iritzi desberdinak ditugu hainbat arlotan. Batzuek ska dugu gustuko, beste batzuek bat ere ez, eta kantariak, Jese, bakarrik dagoenean baladak kantatzen ditu, baina zuzenean nahiago ditu erritmo gogorrak.

■ **Zuzenekoetan zer moduz moldatzen zarete?**

Esperientzia eta konfiantza falta zaigu oraindik. Agertokira igo baino lehen sekulako gogoia daukazu saltoka hasteko. Baina ate-

ratzen zarenean pentsatzen hasten zara: Non goaz? Nola ari gara? Zer dio beheko horrek?

■ **Zuen diskoa edo maketa noizko?**

Ongi prestatuta gaudenean grabatu nahi dugu maketa bat. Erritmo eta abesti gehiago sortu behar ditugu oraindik. Azken bolada honetan nahiko sortzen ari gara, eta hobeak. Hasieran, lagunak etortzen ziren entseguetara eta beste taldeen abestiak jotzeko eskatzen ziguten; orduan, ez genuen tarterik guk

«Inguruko jendeak kristoren animoak ematen dizkigu, baina guri kritikari bat falta zaigu, 'hemen ez dakit zer sartu behar zenuten' esateko»

soslaia

Iñigo, Iñaki, Odei, Egoitz eta Jese, 16 eta 19 urte bitarteko gazteak, Ultzaman sortu zen gazte batzarrean pentsatu zuten rock talde bat osatzeko, Ultzamako lehena. Dagoeneko lau hilabete daramatzate jo eta su.

Ibilbide motz horretan hiru kontzertu eman dituzte dagoeneko, Suarben, Auzan eta Faltzesen. Heldu den ostegunean Iruñeko Aitzina tabernan izanen dira, eta martxoaren bian, Iruñeko gaztetxean.

Hebide elektronikoa ere badute, nahi duenak edozein iradokizun egiteko: eremultzama@hotmail.com

sortzeko. Orain, berriz, bai, eta dagoeneko zazpi ditugu.

■ **Gaur egun nahiko zaila da inoren antza izan gabe estilo propioa izatea, ezta?**

Bai, eragin handia dauka une bakoitzean entzuten ari zarenak, egoera animikoak, eta, nahi gabe, irratia eta telebistan jartzen digutenak ere eragina dauka. Nahiko zaila da estilo propioa izatea eta leku bat izatea musikagintzan dirurik ez baduzu, ezinezkoa.

■ **Ez duzue pentsatu Udalean-edo laguntzaren bat eskatzea?**

Ez du merezi, ez baitigute eman behar. Laguntzarik hobereena hemengo gazte guztiak laguntzea izango litzateke. Guk, behintzat, hau dugu, baina lagunek, deus ez. Udalean dagoen diru guztia futboleko gastatzen dute.

■ **Zer egiten du, bada, zuen adineko jendeak Ultzaman?**

Orain hotza pasatu eta kiroldegian futbitoan entrenatu; gazteak ez dute besterik egiten. Triste da, baina hemen gazteak biltzeko leku bakarra kiroldegia da. Futbola ez den beste zerbait bultzatu beharko lukete: musika, bertsolaritza...

→ Txari Eleta

Subentziolandin galdurik



Nafar Kronika

Martxelo Sotes

Money, money...

Horixe zen Liza Minellik abesten zuen doinu itsaskorra. Euroa dela eta ez dela, diru aldatetaren kabaret honetan, horixe bera da iragarki eta erreportaia guztien soinu banda. Zorionekoak gu euroa iritsi delakoz. Eta harekin batera: Euroforia. Pezeta bazterrean utzi dute, nahiz eta azken bi mendeetako zentralismoaren, uniformetasunaren eta espainiar ezaugarri nabarmenena izan den. Esaterako, Espainiako Estatuak konstituzioak, banderak eta erregimenak aise errazago aldatu ditu, dirua baino, pezeta baino. Hori bai, omenaldien tenorean agintea *pesetaren* jatorri katalana saihesten ahalegindu da; badaezpada.

Moneta, *estatuaren subiranotasunaren* adierazle gisa galdu da. Nafarroan mugaren gertutasunari esker, dagoeneko, aldameneko errepublikaren leloa duten txanponak maiz ikusten eta erabiltzen ditugu: *Liberté, Egalité, Fraternité*, Bordarraren txanponekin batera, nahastuta, guztion patrika eta diru zorrotan. Eta Del Burgori ez al zaio foru-kontrakoa iruditzen? Ongi.

Hala eta guztiz ere borobil atera zaie aldaketa, Europako estatuak.

Prezioak goitik borobiltzearen kontrako iragarki kanpaina jarri zuten abian. Hor ibili dira plastilnazko ditxosozko Gartziatarrak, Eprekin batera jo eta fuego. Emaizta: prezio guztiek gora egin dute. Baina guztietan Estatu bera izan da zergak eta salneurri ofizialak gehien garestitu dituen. Hori bai borobiltzea.

Horrexegatik askotxo euroforiatik erori eta bete-betean eurofobian erori dira. Baina zentimoe-kin borrokan ari direnei zera esanen diegu: euroak ere izan badu abantailarik, eta ez ditugu ohikoak aipatuko. Adibidez txanpon bilketa, kolekzionismoa ikaragarri haziko da. Pentsa zenbat txanpon ezberdin dagoen Europan: 8 txanpon x Europako Batasuneko Euro Guneke herriak + Vatikanoa.

Gainera Nafarroatik at inoiz ibili denak (Iparraldera joatearekin nahikoa) zentimoak erabiltzen ikasiko zuen, eta edadetuak ere aspaldin erabili zituzten. Honenbestez, zenbaki txikiagoak erabiliko ditugu gure kalkulak egiteko. Soldata, ogia eta EGUNKARIAren balioa zenbat euro diren jakitearekin nahikoa izanen dugu. Eta garrantzitsuena azkenean, ia bostehun urte geroago, alde bietako Nafarroak batasun monetarioa berreskuratu du.

MUSIKA

- **Lesaka:** Xorroxin Irratiak antolatuta, bihar Joseba Tapiak *Agur Intxorta maite* bere azkeneko diskoa aurkeztuko du, 20:00etan, Kasinoko sabaian.
- **Burlata:** Zoe taldeak Black Rose tabernan joko du asteartean, 20:30ean.

BERTSOLARIAK

- **Arantza:** Jokin Sorozabal eta Aitor Mendiluze ariko dira igande; 12:00etan eta bazkarian.

HITZALDIAK

- **Bakaiku:** Pepe Rei kazetariak *Guardia Zibilaren inpunitatea* izenburuko bideo emanaldia eta hitzaldia eskainiko du gaur, 19:00etan, elkarte.
- **Noain:** Jose Maria Satrustegi euskaltzain eta antropologoak *Inauteriak Nafarroan, herri baten sormena* hitzaldia emanen du gaur, 20:30ean, eskola zaharretako arkupetako aretoan.

IKASTAROK

- **Atarrabia:** Kirol Patronatuak eskalada ikastaroa antolatu du, Atarrabiako rokodromo berrian egiteko, astelehene eta ostegunetan, 19:00etatik 20:30era. Ikastaroa otsailaren 18an hasiko da. Informazio gehiago, Indurain Anaizen kiroldegian (948-382255).
- **Iruñea:** Hitano ikastaroa antolatu du AEK-k. Ikastaroa Iruñezar euskaltegian izanen da (Errekoletak, 16), astearte eta ostegunetan, 20:00etatik 22:00etara. Hilaren 19an hasiko dira. Informazio gehiago 948-210433 telefonon.

LEHIAKETAK

- **Uitzi:** Nikolas Ormaetxea Orixe Literatur Sarirako lanak aurkezteko epea hilaren 28an akituko

gure aukerak

da. Olerki eta narrazio labur sailetan lan bana aurkezten ahal du egile bakoitzak. Lanek euskaraz egon behar dute eta gaia libre da. Sail bakoitzeko saria 600 eurokoa da.

ERAKUSKETAK

- **Bera:** Julio Caro Baroja Etnografia museoaren *Nafarroa Etnografikoa*. Iragana gogoan erakusketa bihar arte izanen da kultur etxean, 18:00etatik 20:00etara.
- **Burlata:** Fermin Biurarena artistaren margolanak Joakin Azkarate karrikako kultur aretoan izanen dira igandea arte. Gaur eta bihar, 19:00etatik

21:00etara, eta etzi, 12:00etatik 14:00etara.

- **Iruñea:** Adolfo Lahoza aragoiarren margolanen erakusketa hilaren 8a arte izanen da Hezkuntza Departamentuko klastro gaineko galerian. Lanegunetako goizetan bisitatzen ahal da.
- **Zangoza:** Hainbat artista garakideren lan grafikoa biltzen duen *Suite Olympic Centennial* izeneko erakusketa hilaren 12a arte izanen da kultur etxean, asteartetik larunbatera, 19:00etatik 21:00etara.
- **Zizur Nagusia:** Marta Loredolaizen margolanak kultur etxean izanen dira hilaren 17a arte; lanegunetan, 19:00etatik

21:00etara, eta jai egunetan, 12:00etatik 14:00etara.

- **Barañain:** Izarren herria ezagutzeko, *Planetario bidaiaria* erakusketa kultur etxean 22a arte.
- **Iruñea:** *Mugak* zabaltzen egitasmoaren baitan, Zabaldiko tategian Lourdes Terraza guatemalarraren margolanak ikusgai dira hilaren 24a arte.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Nafarroako Goi Mendi Eskolako eski kolaboratzaile izateko eskaerak aurkezteko epea zabalik da. Curriculumak Mendi Federazioaren egoitzan eman behar dira (Paulino Caballero, 13).

Asteko erakusketa

Silvia Etxandi

Izenburua: «Destilando deseos de color».

Non: Molmar galerian (Curia, 18).

Noiz arte: otsailaren 9a arte.

Ordutegia: Astelehenetik ostiralera, 11:30etik 13:30era eta 18:30etik 20:30era; larunbatetan, goizez bakarrik.



• SILVIA ETXANDI